



# HARTXINTXAR LASTERKETA

## ARAUTEGIA

1.- Artikulua: Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolak I. HARTXINTXAR LASTERKETA antolatuko du Zarautzen martxoaren 29an.

2.- Artikulua: Hartxintzar lasterketan parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa izango da, lasterkariak lasterketa egiten den urtean beteko dituelarik.

3.- Artikulua: Lasterkarien izen-ematea [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) webgunearen bitartez egin ahalko da. Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolako 12 eta 16 urte bitarteko ikasleek presentzialki izena emateko aukera izango dute, ikastolako idazkaritzan.

12 eta 16 urte bitarteko lasterkariak izena ematerakoan, gurasoen edota tutore legalaren baimena beharko dute.

Izen-emate presentzialaren kasuan, izena ematerakoan, dokumentua ikastolako idazkaritzara sinatuta ekarri beharko dute. Webguneko izenemateetan, gurasoaren edota tutore legalaren izena, NAN zenbakia eta atxikituta izango den baimena onartzea nahikoa izango dira.

4.- Artikulua: Lasterketaren prezioa 12€-koa izango da. Izen-emate presentzialaren kasuan, kopuru zehatza eraman beharko da idazkaritzara.

5.- Artikulua: Izena emateko epea martxoaren 22ra arte egongo da zabalik.

6.- Artikulua: Lasterkariak proba aurreko egunetan bere izena parte-hartzaileen artean azaltzen dela ziurtatu beharko du.

7.- Artikulua: Izena emanda duten lasterkarien inolako diru itzulketarik ez da onartuko.

8.- Artikulua: Dorsalak Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolan banatuko dira lasterketaren egunean bertan, arratsaldeko 18:00etatik 19:15era bitartean, irteera puntuan.

Dorsala jaso ahal izateko, NAN zenbakia edo ordainagiria eraman beharko da.

9.- Artikulua: Irteera eta helmuga Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolaren parean izango dira.

10.- Artikulua: Distantzia eta ordutegia:

3,5 Km-ko Hartxintzar lasterketa (19:30ean):

11.- Artikulua: Hartxintzar lasterketa burutzeko denbora muga 45 minutukoa izango da.

12.- Artikulua: Kategoria hauek bereizi eta sarituko ditugu:

3,5 Km-ko Hartxintzar lasterketa:

Emakumezkoak: 1, 2 eta 3

Gizonezkoak: 1, 2 eta 3

Ez-bitarrak: 1, 2 eta 3

- Sari banaketa: 20:30ean izango da helmuga inguruan.

13.- Artikulua: Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango proba honetan parte hartzaileek bere buruari, beste pertsona bati edota hirugarren bati kalte egiten badio.

14.- Artikulua: Ezinbesteko arrazoiengatik (eguraldi txarra, etab.) lasterketa bertan behera gelditzen bada, antolatzaileak EZ ditu itzuliko inskripzioen zenbatekoak.

Antolatzailea

